



Iluntasunaren ametsak

Anakhadi Loum Yáñez

EUSKARA POESIA 17-18 URTE

3. Saria

Egunsentia zen,
lagunari bidaia proposatu diote.
Baliabideez betetako bidaia,
ametsak saldu dizkiote.
Lurralde harrigarria,
behintzat hori diote.
Inoiz ez da herritik atera,
baina orain zelako trote.

Amarengana doa,
bidaia disdiratsu baten berri.
Amak pentsatu gabe,
dirua mahaian jarri.
Zenbat diru puxka,
hori ez du ikusten sarri.
Europarantz doa,
bizitza hobe baten egarri.

Amari agur esan,
itxuraz urduri dirudiena.
Bere semea urrun joanen da,
agian ez da beharko lukeena.
Haren gorputza itsasondoan,
eta arima da herrira bueltatu dena.
Gutziz iluntasunean bihurtu da,
amets batekin hasi zena.

